



Suhiltzaileek etxekoan eta bizilagunen laguntza izan zuten sutea itzaltzeko garaian. MIRIAM LUKI

## Hegialde auzoko Egizabal baserrian kalte handiak eragin ditu suteak

**Legazpi** » Legazpiko, Ordiziako eta Oñatiko parkeetako suhiltzaileak eta bizilagunak aritu dira sua itzaltzeko lanetan.

M. LUKI - A. AREIZAGA

Atzo goizean sutea izan zen Legazpiko Egizabal baserrian. Goizeko zazpiak aldera piztu zen sua ukuiluan, eta baserrian kalte garrantzitsuak eragin bazituen ere ez zen inor zauritu.

Hegialde auzoan dago Egizabal baserria. Sutea 07:00ak aldera hasi zen ukuiluan eta ganbararaino zabaldu zen. Maria Angeles Agirre baserriko jabearen hitzetan, «zazpi lagun bizi gara etxean eta ordu-rako guztiok iratzarrik geunden. Suhiltzaileei deitu diegu eta denbora gutxira etorri dira. Hala ere, ur faltan zeudenez denbora behar izan dute».

Ezbeharra gertatu eta zer egin-gin duten ez zekiten atzo goizean. «Orain zer gertatzen den itxaron



Oñatiko eta Ordiziako suhiltzaileak ere joan ziren, Legazpikoekin batera. M. L.

eta ikusi beharko dugu», erantzun zuen Luciano Zabaleta senarrak. Baserria oso kaltetuta geratu da.

Goizeko hamaikak alderako sutea kontrolpean zuten suhiltzaileek. «Barruan zegoen lasto guztia atera dugun arte ezin izan dugu sutea itzali, eta horretarako jende asko behar izan dugu. Oñatiko, Ordiziako eta Legazpiko parkeetako suhiltzaileak mobilizatu ditugu.

Baserria oso kaltetuta dago, sua teilaturaino iritsi da egurrezko egiturak erraztuta», zioen suhiltzaile batek. Era berean, suhiltzaileak batu zitzaizkien bizilagunen laguntza eskertu zuen. «Eskertze-koa da etxekoek eta auzotarrek eman diguten laguntza». Suhiltzaileak adierazpenak egiten zuten bitartean hogeit lagun inguru ari ziren lanean beraiekin batera.

### Laburrak

#### Aterpe elkartean hitzaldia egingo dute bihar

**URRETXU** » Urretxuko Aterpe jubilatutako elkartean hitzaldia egingo dute bihar arratsaldean. Adinekoak eta medikazioa; botikina etxean izena jarri diote solasaldiari, eta 17:30ean hasiko da. Sarrera irekia izango da interesa duen herritar ororentzat.

#### KZguneak Jauregi kalean eskainiko du zerbitzua

**URRETXU** » Urretxuko KZguneak Barrenkale kalean zuen egoitzako atea itxi ditu. Aurrerantzean Jauregi kaleko 21. atarian dauden udal zerbitzue berriaren eskainiko du zerbitzua, liburutegiaren ondoan. Toki aldaketa tarteko, zentroa itxita egon da azken egunetan. Bihar helduko diote ohiko ordutegiari, 16:00etatik 20:00etara.

#### Musika bandak kontzertua egingo du igandean

**LEGAZPI** » Legazpiko Musika Bandak kontzertua egingo du igandean, urriak 24. Latxartegi aretoan da emanaldia, 13:00etan hasita. Herritar guztiei helarazi nahi diete bertaratzeko gonbita.

#### Euskal Jolasen Festa ospatuko dute zapatuan

**LEGAZPI** » Zapatuan, urriak 23, Euskal Jolasen Festa egingo dute Legazpin. 17:00etan hasiko dituzte jolasak Azokan, eta Sorgintxulo aisaldi taldeak gidatuko ditu. Lau urtetik Lehen Hezkuntzako 4. mailara arteko haurrentzat eta haien gurasoentzat prestatutako jarduerak izango dira. Kanpo girok ez bada go Urtetik pilotalekuan ospatuko da jaiak.

#### Lauaxetari buruzko film emanaldia egingo dute

**LEGAZPI** » Gaur arratsaldean ikusentzunezko emanaldia egingo dute Legazpin. *Lauaxeta*. A los cuatro vientos izeneko filma proiektatuko dute, Kutxaren Gizarte Ekin-tzak sustatutako emanaldian. 18:00etan hasiko da proiektzioa Legazpiko kultur etxeko areto nagusian, eta herritar guztiei irekia da, sarrera doan dela.

## Peñagarikanok, Elortzak, Maiak eta Alberdik saioa egingo dute zapatuan

**Legazpi** » Bertso Eskolak antolatu du bertso saioa, hamargarren urteurrenaren barruko ekitaldi modura.

A. AREIZAGA

Legazpiko Bertso Olariak bertso eskolak bertso saioa antolatu du larunbaterako, urriak 23. Eskolak sortu zuteneko hamargarren urteurrena du aurten, eta saioa horren harira antolatu dute.

Anjel Mari Peñagarikano, Uxue Alberdi, Igor Elortza eta Jon Maia ariko dira bertsoetan, eta gai jartzailer lanak Julen Agirreburualdek egingo ditu. Saioa larunbatean 18:00etan hasiko da Latxartegi aretoan. Sarrera 5 euro kostako da.

## Goierri eta Izadi Zaleak elkarteek irteerak egingo dituzte hurrengo asteetan

**Legazpi** » Legazpiarrek GR93 bidea egiten jarraituko dute, eta urretxuarrek hiru eguneko irteera prestatu dute.

A. AREIZAGA

Goierri eta Izadi Zaleak mendizale elkarteek irteerak antolatu dituzte hurrengo asteburueterako. Legazpiko Izadi Zaleek GR93 bidearen laugarren etapa egingo dute igandean, hilak 24, Ezkarai eta Cornago artean. Izena emateko bihar mendi elkartearen egoitzara joan behar da, 19:00etatik 20:00etara.

Urretxuko Goierrikoak, beren aldetik, Aezkoa eta Orbaizeta (Nafarroa) inguruetara joango dira hiru egunerako, urriaren 30etik azaroaren 1era. Asteburu osoko irteerara joan nahi dutenek elkartearen Urretxuko egoitzara joan beharko dute.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Goierriko HITZA jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
goierri@goierriko-hitza.info / Tel.: 943-16 00 56

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak